

BALOREZKO PROPOSAMENA

Erantzuten diogun behar edo arazoari dagokionez, gizartean betetzeke hainbat behar egonagatik, berdintasun ezak eragiten duen beldur eta babes faltaren aurrean egoera aldatu beharra dagoelako ustea dugu. Erasoengatik (berezi sexu-erasoak, baina lapurretak ere barnean hartu ditugu), jendea ez dabil lasai. Horri aurre egiteko botoi berezi asmatu dugu.

Gure proiektua giltzatako berezi bat egitean datza. Botoia izango du barruan, eta sortuko dugun aplikazioari konektatuta egongo da, norberaren datuak bertan egongo direlarik. Erasoren baten aurrean, giltzatakoan dagoen botoiari sakatu eta poliziari deia egingo zaio aplikaziori esker. Horrela, kaleko erasoak gutxituko lirateke, desagertzera iristeraino. Tresna txiki batekin gizarteko desberdintasunak sortutako ezbeharren amaiera iritsiko litzateke.

Gure produktua erosten badute, beraien segurtasuna bermatuko litzateke. Lehen esandakoaren haritik, jendeak beldur edo arriskurik ez du izango eta kalean lasai ibiliko dira. Elementu horrek bizia erraztuko die, eta giltzatakoa eramatearekin soilik eraso, lapurreta edota bortxaketak saihestu ahal izango dituzte. Gainera, gure produktua giltzatakoan jartzearen erabakia ez da hausazkoa izan, izan ere, objektu hau egunerokoan erabiltzen dugu eta horrek, gure gailua beti gainean eramatea eragingo du. Ondorioz, beti eskuragarri izango dugu giltzatakoa eta horrek erasoak ekiditeko momentuan erabiltzeko aukera emango digu.

Lehenik, azkartasuna da giltzatako honen abantaila nagusia: bestela ere gertatuko lirateen salbaketak unean bertan gertatuko dira eta denbora-murrizketa hori ezinbestekoa izango da gure gizartearen garapen osasuntsuan.

Horri loturik, segurtasuna ere aipatzekoa da. Kanean beldurra sentitzea oso ohikoa da egun; gehienetan, emakume eta nesken kasuak. Genero-desberdintasunak eragin dituen arazoan aurrean babes falta dago, eta hor segurtasuna bermatzea da gure proiektuak egingo lukeena. Horiez gain, gizonak edo pertsona zaharrak ere lapurreta edo eraso arriskuan daude, edozein biztanle bezala.

Balio kuantitatiboari buruz esan dezakegu gizarte guztiaren eskura egongo direla giltzatakoak, prezio oso baxuak jartzeko asmoa dugulako. Ez zaigu iruditzen asko balio behar duenik gure produktuak, gizartean aldaketa bat eragin nahi badugu, guztientzako eskuragarri egon beharko duelako, baina betiere ahaztu gabe gure enpresak irabaziak izan behar dituela, noski.

Balio kualitatiboari dagokionez, diseinu berezia izango du, baina edertasunean zentratu ordez, praktikotasunean jarri dugu arreta. Izan ere, erasoen biktimak ahalik eta diskrezio handienarekin erabiltzea komeni da, erasotzaileak botoia ez ikusteko. Ikusiko balu, haren jarrera bortitzagoa izan liteke, eta hori arriskutsua da.

Berrikuntza izango da: egia da botoiak eta giltzatako bereziak sortuta daudela, baina bien arteko konbinazioa, eta horiek koordinatuko dituen eta norberaren datuak izango dituen aplikazioaren sorkuntzarik ez da izan orain arte. Ideia berria da gurea.